BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3830

EBAZPENA, 2012ko uztailaren 19koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena. Honen bidez, diru-laguntzak ematen zaizkie Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan jarraitu nahi duten irabazi asmorik gabeko erakundeei, ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak eskolaren esparruan gara ditzaten.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko maiatzaren 16eko Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz (ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak eskolaren esparruan garatzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzan jarraitu nahi duten irabazi asmorik gabeko erakundeentzat diru-laguntzak deitzen dituena), aurkeztutako eskabideen espedienteak gainbegiratu eta ebaluazio-batzordearen proposamena aztertu ondoren, eta deialdi-aginduaren 7. eta 8. artikuluak aplikatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ondoren aipatzen diren elkarteei diru-laguntza hauek ematea, kasu bakoitzerako zehazten diren diru-kopuruen arabera:

Elkartea	Lurraldea	Gehieneko diru-laguntza
Gao Lacho Drom	Araba	48.930,00
Kale dor Kayiko	Gipuzkoa	67.992,00
Kale dor Kayiko	Bizkaia	130.500,00
Amuge	Bizkaia	43.171,00

Bigarrena.– Diru-laguntza ordaintzea.

Deialdiaren aginduko 12.a) artikuluan dioenarekin adostuta, agindu honen esparruan emandako diru-laguntzen % 75a aldez aurreko ordainketa baten bidez egingo da:

Elkartea	Lurraldea	1. ordainketa
Gao Lacho Drom	Araba	36.697,50
Kale dor Kayiko	Gipuzkoa	50.994,00
Kale dor Kayiko	Bizkaia	97.875,00
Amuge	Bizkaia	32.378,25

% 25eko bigarren ordainketa egingo da aginduak dioen aldian jasandako gastu guztien justifikazioaren ondoren:

Elkartea	Lurraldea	2. ordainketa
Gao Lacho Drom	Araba	12.232,50
Kale dor Kayiko	Gipuzkoa	16.998,00
Kale dor Kayiko	Bizkaia	32.625,00
Amuge	Bizkaia	10.792,75

Aurreko puntuan aipatutako dokumentazioa 2012ko irailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzan.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 19a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
CÁNDIDO HERNÁNDEZ GARDUÑO.